

Etzi hasiko dira
auzoko jaiak
Tranpazuloren
igoerarekin ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2006-07-13 ▶ IV. urtea ▶ 936. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Txintxarriak astintzeko sasoia iritsi zaie alegiarrei

OFIZIALAK ▶ Bihar eguerdian botako dute txupinazoa Udalak antolatutako jaien barruan

ALTERNATIBOAK ▶ Gaztetxeok prestatutakoak gaur hasiko dira, suziri eta sagardo dastaketarekin ▶ 5

TOLOSA ▶

Tolosak badu ordezkaten duen himnoa

Aurkezpena irailaren 16an egingo dute ▶ 2

J. ASTIBIA



Goiza lagun artean eta jostetan pasatzeko aukera

ARESO-LEITZA ▶ Haur txokoak dituzte txikienek uztaileko goizak betetzeko ▶ 7

IBARRA ▶

‘Sua’-ren filmaketa, Seguran

Erdi Aroko azoka baliatuz, etzi ▶ 6

hitza

Harpidedunen
txokoa

Hitzako harpidedunen artean uztailaren 13tik 16ra bitartean Villabonan IRRINTZI elkarteak antolaturik burutuko den 10. Garagardo azokarako **bi pertsonentzako bina afari zotz** egin ditugu.

ZORIONAK eta eskerrik asko
HITZA aukeratzeagatik!

Irabazleak:

Maria Luisa Irazusta Imaz (Anoeta)
Juan Jose Goikoetxea Ezponda (Villabona)



MUSIKA ▶

Tolosak badu bere himnoa

750. urteurrena dela eta, kontzertu berezi bat antolatu du Orfeoia, himnoa ere bertan aurkeztuko delarik

ESTI EZEIZA

Tolosaren 750. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldien artean, Orfeoia besteak beste, kontzertu bat antolatu du. Jaialdia, Euskal Herria Plazan, irailaren 16an egingo da, urteurrena betetzen den astearekin bat eginez. Ekitaldia Edurne Ormazabal kazetariak eta Manex Urruzolak zuzenduko dute.

Irailaren 9an entzun ahal izango diren abestiak ETBko *Euskal Kanturik Onena* saioan aukeratuak izan dira. Dena den, abesbatza, bakarlari eta orkestak interpretatu behar dituztenez, egokitzapen batzuk egin zaizkie kantuei, eta horretaz arduratu da Enrike Ugarte musikaria. Tolosan izango dira ere egun horretan, Iruñako Concerto Orkestra eta Ainhoa Arteta sopranoa. Hala ere, antolatzaileek «ixilpean» gorde nahi dute egun horretako egirua, «jendea txundituta gera dadin».

Bestalde 750. urteurrena oroitzen duen himnoa ere egun horretan aurkeztuko dute. Abesti hau Enrike Ugartek, enkarbogen esanetan, «abesti herrikoa izan behar zuen, nahi zuen orok abestu ahal izateko eta erraz hartzeko». Hala, hitzak, Karlos Linazasorok jarri dizkio. Lan hau jendaurrean aurkezteko, 750 ahots biltzeko asmoa du Tolosako Orfeoia. Horregatik, herri ekimen bat

PARTE-HARTZEKO ▶

Nortzuk. Tolosako edo Tolosaldeko edonor. Musika talde, kultur eta gastronomia erakundeak...

Nola. 625 70 36 84 zenbakira deituta, edo 750 Fundazioaren web orrialdean (www.tolosa750.net).

Zer egin? Telefono zenbaki horretara deituta, edo web orrian datuak beteta, beraien azalduko dizute, non eta noiz diren entseguak.

izatean, edozeinek hartu dezake parte proiektuan. Eta CD batzuk prestatu dituzte, interesatuek abestia ikasi dezaten, eta beren kabuz entsaiatu.



Tolosako Orfeoia emanaldietako batean, arxiboko irudietan. JOXEMI SAIZAR

MIKEL TELLERIA ▶ TOLOSAKO ORFEOIKO LEHENDAKARIA

«Tolosa, berez, tradizionala da, eta himnoa ere horrela da, hemengoa»

Tolosako Orfeoia antolatu duen kontzertu erraldoi horretarako probak eta entseguak egiten ari da dagoeneko. Egitasmo honen inguruko xehetasunak eman dizkio Mikel Telleria, Tolosako Orfeoiko Lehendakaria HITZARI, eta jendea animatzen du parte-hartzera. **Entseguen hasi zarete dagoeneko, zer moduz doaz?** Oso ongi, oso gustura gaude. Oraindik denbora gutxi darabagu propaganda egiten, eta dagoeneko jende asko animatu da. Hauetako batzuk gero ere Orfeoian geratuko dira, eta beste batzuk berriz, himnoa bakarrik abestu nahi dute. **Zer da lortu nahi duzuen?** Bi helburu ditugu: bata, kontzertu honetarako jendea bila-

tzea, eta bestetik, erakartzea. Hau da, Orfeoia pixkanaka bertarako probak eta entseguak egiten ari da dagoeneko. Egitasmo honen inguruko xehetasunak eman dizkio Mikel Telleria, Tolosako Orfeoiko Lehendakaria HITZARI, eta jendea animatzen du parte-hartzera.

Zer nolako jendea bilatzen duzue?

Denetik, edonork har dezake parte. Hala ere, nagusiki gazteak erakarri nahi ditugu. Baina badakigu zaila dela, hauek beste gauza batzuk baituzte buruan.

Nolakoak dira entseguak?

Entsegu gutxi egiten ditugu. Astean bat, emakumeekin, beste bat gizonezkoekin, eta azkena, denak elkartuta, zuzendari, piano-jole eta abarrek. Hauek, bakoitzaren ahotzak ikasteko dira, eta komeni-garria litzateke, parte hartu nahi duenak astean behin

agertzea. Bestetik, CD bat prestatzen dugu, jendeak bere kabuz ere ikasi ditzan abestiak. Hau aspaldidanik egiten dugun teknika bat da, eta ongi funtzionatzen du.

Zein ezaugarri izan behar dira abesbatza batean parte hartu ahal izateko?

Normalean edozeinek har dezake parte, belarria izan behar da, eta orokorrean denek dugu. Hala ere, proba bat egiten dugu, baina, batik batik, zein taldetan sartu behar duen zehazteko. Hau da, zer nolako ahotsa duen jakiteko.

750 ahots aurkitu nahi izan dituzue...

Bai, baina hau zenbaki sinbolikoa da. 750 ahots esaten dugu baina oso zaila da zehazki horrenbeste aurkitzea. Jende asko espero dugu hala ere, 30 sozietate baitaude Tolosan.

Hasi al zarete entsaiatzen?

Ez, oraindik ez, aldaketa batzuk egin beharra zuden-eta. Hala ere entzun dugu, eta datorren astean-edo hasiko gara.

Nola deskribatuko zenuke himnoa?

Tolosa, berez, tradizionala da, eta abestia bera ere hala da, hemengoa. Polita da, alai eta gure herria ordezkatzen du.

Kike Ugarteri hau konposatzeko eskatu zeniote garrantzi, zer aurkitu nahi zenuen?

Erraza, itsaskorra eta ordezkatzailea izan behar zuela esan genion. Eta gainontzeko guztia egileak berak erabaki zuen. Guk ideia batzuk bakarrik proposatu genizkion.

Zergatik Kike Ugarte eta Karlos Linazasoro?

Argi genuen Tolosakoa, eta tolosarrentzat izan behar zuela himnoak, horregatik, bi tolosar hauek aukeratu genituen. ◀

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2006ko ekainaren 26ean, Leidor zinemaren inguruko urbanizazio proiektua exekutatzeko lanen Klausula Administratiboen partikularen agiria onartu zuen

1.- Helburua.- Leidor zinemaren inguruko urbanizazioaren obrak

2.-Lizitazioaren zenbatekoa.-

-Proiektua 780.287,49€ (BEZa barne)
-Segurtasun eta Osasuna 32.804,80€ (BEZa barne)

3.- Lanak egiteko epea. 4 hilabete

4.- Espedientea ikusteko.-

Copitec (Gudari kalea 8, beheal); telefona: 943 65 40 28

Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66

5.- Behin-behineko fidantza.- 15.605,74€.

6.- Behin betiko fidantza.- adjudikazio zenbatekoaren %4.

7.- Enpresa-sailkapena:

G.TALDEA 6.AZPITALDEA d.KATEGORIA

8.- Eskaintzak egiteko tokia eta epea.- Tolosako Udaleteko Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, 2006ko uztailearen 20ra, eguerdiko ordubata (13:00) arte.

Tolosa, 2006ko uztailearen 10ean.- ALKATEA

iragarki laburrak ▶

LANA

Haur zaintzailea. Emakumea behar da haurra zaintzeko Alegian. Deitu 615 00 32 02 zenbakira.

Haur zaintzailea. Neska euskaldun bat behar da, haur bat zaindu eta ebeko lanak egiteko. Deitu 638 18 52 05 zenbakira.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna batean. Lanegun osorako. Telefono zenbakia: 677 32 99 34

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635 74 52 91 zenbakira.

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA
EDARITEGIA

Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRA!

Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

HIRIGINTZA ▶

Renfe geltokia eraberritzeari ekingo diote

6 hilabeteren buruan amaituko dituzte lanak 950.000 euroko aurrekontuarekin

NOELIA LATABURU

Tolosako Renfe tren geltokia eraberritzeko lanak hasiko dituzte aurki. «berrikuntza osoa» egiteko asmoz. Proiektua egikaritzeko sei hilabeteko epea dute eta 950.000 euroko aurrekontua, iragan ostegunean Espainiako Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu dituzten datuen arabera.

Lanen helburua, Renfeko arduradunen esanetan, geltokiak «gutxiengo baldintzak bete ditzala» lortzea da, bai eta orain arte betetzen ez ziren arauetara egokitzea ere. Eraberritze honek geltokiko hainbat alor aldatuko ditu. Lehenik eta behin, bidaiarien eraikinaren eraldaketa orokorra, hau da, fatxada, aurrealdea, barrualdea eta lehen solairua. Hala-



Itxura aldatuko du Tolosako tren geltokiak. JOXEMI SAIZAR

BIDAIARIARIK

Tolosatik Renfe geltokitik abiatuta egunero tren hartzen duten bidaiarien batez bestekoa 3.325eko da

ber, igogailuak ezarriko dituzte nasen artean eta markesina berriak jarriko dituzte. Bestalde, igarobide egokiak lortzeko 90 metro gehituko dizkiote geltokiari. Azkenik, higigarriak aldatuko dituzte.

Hau guztia bidaiariek «ahalik eta erosoan» senti daitezen egingo dute arduradunek. Izan ere, asko eta asko dira egunero-egunero tren garraio bezala aukeratzen dutenak; hala, batez beste 3.325 bidaiarik hartzen duten tren, batik bat Irurera eta Donostiara joateko, egunero 74 tren igarotzen delarik Tolosatik.

KULTURA ▶

Gau Giroko lehen saioa bihar, Balen Lopezen eskutik

2006 urteko Gau Giroko lehen saioa bihar izango da. Balen Lopez de Muniain musikariaren emanaldia izango da, hain zuzen, egitaraua irekiko duena. 22:30etik aurrera, Plaza Berrian *Lotuneak* bere bigarren diskoa aurkeztuko du Geoff Warren flauta eta saxo-jolearen, Salvatore Maiore biolontxelo-jolearen eta Joxan Goikoetxea akordeoi-jolearen laguntzarekin.

GIZARTEA ▶

Bihar, udaleku musikalen jaialdia

Tolosako Musika Eskolak antolatzen duen udaleku musikaletako arduradunek jakitera eman dutenez, bertan parte hartzen duten gazte-txoek jaialdi berezia egingo dute, bihar goizean. Hori dela eta, bertara joateko gonbidapen berezia luzatu nahi dute. Gaur, 09:30etik 11:30era bitarte burutuko dituzte udaleku musikaleko haurrek entsegu orokorra.



Xabier Lizaso, udaleku musikalen zuzendaria. E. EZEIZA

KIROLA ▶

Diru-laguntzak eskatzeko epea, amaitzeaz

Tolosako kirol elkarte eta klub ezberdinek euren egiturak garatu ahal izateko diru laguntzak eskatzeko aukera izango dute Tolosako Udalean. Bada, aipatu diru laguntza arruntak eskatzeko epea hil honen 31n, astelehenarekin, bukatuko dela jakinarazi du Tolosako Udaleko Kirol sailak. Halaber, informazio guztia biltzen duten eranskinak behar izanez gero udal-txeko kirol departamenduan eskuragarri daudela informatu dute kirol arduradunek.

GIZARTEA ▶

Harizpe elkarteak Laredora bidaia antolatu du

Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarteak Laredora (Espainia) bidaia antolatu du datorren abuztuaren 25erako. Txartelak salgai daude dagoeneko elkartean bertan, abuztuaren 23a bitarte. Bazkideek 29 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 32. Goizeko zortzietan irtengo dira San Frantziskotik. Santurtzin geldialdia egingo dute eta ondoren Laredoraino joango dira. Bertan azoka bisitatuko dute eta kalejira izango dute Urdiña Txikiko txarangarekin.

GIZARTEA ▶



750 Fundazioaren ekimenak, jendaurrean

N. Lataburu ▶ Tolosa 750 Fundazioak duela hilabete batzuk antolatutako eskaparatismo ikastaroak izan zuen arrakasta aintzat hartuz, Tolosa 750 Fundazioak guztien parte-hartzea eskertzeaz gain, ikastaroan parte hartu ezinik geratu ziren

guztietara bilera informatiboa eskaini zien, atzo Kultur Etxean, fundazioko koordinatzaile Gurutze Zubeldiak —argazkian—. Fundazioak urtean zehar egingo dituen ekimenen berri eman zuen Zubeldiak bertaratuen artean. NOELIA LATABURU

EUSKAL JAIA

BILLABONA 2006

ZIKIRO JATEA

Uztailak 29
Larunbata

Itsaskabra budina salsa arrosarekin
Nafarroako zainzuriak ozpin-olio saltsa bereziarekin
Pikillo piperrak bakailaoz beteta pikillozko saltsarekin
ZIKIROA letxuga eta tipula entsaladarekin

Mokazko tarta jogurt-krema eta bainilazko izozkiarekin
Kafea eta Kopa

Menua: 20 €

Txartelak salgai:

- Amasa okindegia-Kixubi okindegia-Larrea okindegia-

Labezaín okindegia-Ogi Goxo okindegia-

Shepherds garagardotegia - Iturrigoxo jatetxea - Garmendia

Harategia - Arnasa - Iru-Aldeta - Maxola - Joe-Itzalpe

Oharra:

Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 23a izango da.



ASTEASU ▶ SANTAMAÑAKO JAIK

Tranpazuloren igoerak emango die jarraipena festei

Aurreko igandeko ekitaldien ondoren, etzi hasi eta astearte bitarte hainbat ekitaldi egingo dira Asteasuko Santamañan



Haurrentzako jolasak prestatuko dituzte etzi arratsalderako. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Santa Marinaren omenez, Santamaña elkarteak, Goiballako bizilagunak eta Asteasuko Udaleko Festa Batzordeak antolatuta dituzte Santamañako Festak. Aurreko igandean hasi baziren ere, egun batzuk igaro ondoren, etzi hasi eta datorren asteartera arte hainbat ekitaldi izango dira Santamañako au-

zoan. Etzi, larunbatean, egingo den Tranpazuloren igoerak emango die ekitaldeei hasiera.

Herri-kirolek eta jolasak izango dute garrantzia urteroko moduan. Puntako harri-jasotzaileek eta aizkolariek erakustaldia egingo dute, baina ikusmin handia sortzen duen bailarakoen arteko lehia ere ikusgai izango da.

Kirolekin jarraituz, federatu-

gabeko txirindulariek luzitzeko aukera izango dute igandean goizean korrituko den Andazarrateko XXII. Igoeran. Txirindularien pareko abiadura ibiliko dira zaldi gainean igandean arratsaldeko lasterketan. Seigarren edizioa izango da aurtengoa.

Omenaldia

Larunbatean, jolaserako aukera izango da, bai haurrentzat, bai token *nazioarteko* mailan lehiatu nahi dutenentzat ere. Musikak ere bere tarteak izango du. Trikititza izango da nagusi egun guztietan. Are gehiago igandean, Lajari eta Landakan-

EGITARAUA ▶

ETZI

16:30. Festen hasiera.

Tranpazuloren igoera eta txupinazoa.

17:00. Haur jolasak.

18:30. VI. Nazioarteko Toka Txapelketa.

21:00. Herri afaria. Gauean Izer eta Narbaiza trikitilariak. Goizaldera, txokolatada.

IGANDEA, HILAK 16

10:00. Andazarrateko XXII. Igoera (federatugabeko txirindularientzat).

11:15. Meza nagusia.

Ondoren herri-kirolak.

Aizkolariek: Agite eta Olasagasti. Harri-jasotzaileak:

Haimar Irigoien eta Ostolaza.

Bertsolariak: Murua eta Irazu.

Trikitilariak: Laja, Ziolar eta Eguren.

Herri-kirol saioaren ondoren omenaldi xume bat egingo zaie Lajari eta Landakandari.

17:30. VI. Zaldi Lasterketa.

Gauean. Laja, Ziolar eta Eguren trikitilariak.

ASTELEHENA, HILAK 17

22:00. Epelde eta Lutxurdio trikitilariak. Goizaldera txokolatada.

ASTEARTEA, HILAK 18

11:15. Meza nagusia.

Ondoren hamaiketakoak.

13:00. Herri kirolak bailarakoen artean. Ondoren, trikitilariak, Kupela Taldea, eta bertsolariak, Mañukorta eta Zeberio.

17:30. Kalejira.

Gauean. Kupela Taldea.

Gauerdian. Tranpazuloren jeitsiera.

dari egingo zaien omenaldian. Bertsolariak ere ez dira faltako. Murua, Irazu, Mañukorta eta Zeberio jarriko dute gazta eta piperra Santamañako baselizararen inguruan.

Mahai inguruan biltzeko aitzaki ugari izango dira ere. Hasi larunbateko herri afaritik, goizaldean egingo diren txokolatadak arte. Igandean, meza ondoren, hamaiketako goxoa.

ZIZURKIL ▶

I. Baserriko Argia Beka antolatu du Udalak

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak I. Baserriko Argia Beka antolatu du, baserrietako ondarea jasotzeko asmoz. Lana euskaraz egin beharko da eta *Zizurkilgo Baserri eta Herriko Argazkiak* izenburupean aurkeztuko da, argazkiaren jatorria, data eta argazkian azaltzen diren leku eta pertsonen datuak zehaztuz.

Lana paperean aurkeztuko da eta argazkiak digitalizatu egingo dira, fitxa bat osatuz bakoitzarekin. Bekadunak zizurkilgok irailaren 15a arte aurkeztu ahal dira eta bekadunaren izena urrian, Zizurkilgo Azoka Berezian, jakingo da. Bekak sei hilabeteko iraupena izango du. Informazio gehiago, udal bulegoetan edo 943 69 24 95 zenbakian.

GIZARTEA ▶

'Euskal Herria Sozialista'-ren bigarren alea kalean

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko lagun talde batek bultzatutako 'Euskal Herria Sozialista' aldizkariaren bigarren zenbakia kalean dago. Gai hauek irakurri daitzeko bertan: Parisko komuna; teoria; langile klasea eta klase kontzientzia; Txinako iraultza eta kontrairaultza; prekarietatea Euskal Herrian; ikasleen indar iraultzailea; PNV II. Errepublikako lehen urteetan; Nepalgo iraultza eta *Erreforma ala iraultza* liburuaren kritika. Harremanetan jartzeko deitu 685 72 09 39 zenbakira edo idatzi euskalherria-sozialista@hotmail.com helbidera.

ZUZENKETA ▶

Atzoko HITZAN bestelako informazioa azaldu bazen ere, Irrintzi elkartearen X. Garagardo Azokak gaur irekiko ditu atekak.



badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia

- ▶ LEITZA HITZAREN egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAREN egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

ALEGIA ▶ JAIK

EGITARAU ▶

EGITARAU OFIZIALA

BIHAR, OSTIRALA

10:30. Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaldebeko arkupetan.

11:30. Ordiziako erraldoi eta buruhandiak eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira, Larraitz auzotik plazaraino.

12:00. *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean kontzentrazioa udaldebeko eta ikurra jartzea.

12:00. Txupinazoa eta Txintxarriaren gobera, jaien hasiera iragartzeko, futbol 8ko Aralar-Intxurre talde infantileko neska eta mutilen eskutik.

17:00. Haur jaialdia, Kalebeherako parkean. Kale antzerkia: Poxpolo eta Mokolo. Merienda eta jokoak. Helduentzat, guraso eta zaintzaileentzat, sagardo kupela.

19:00. Erraldoi, buruhandi, dultzainero, txistulari eta trikitilariaren kalejira, Kalebeheratik irtenda.

19:45. Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua elizan.

21:00. Zikiri jatea, plazan.

23:00. Bertsolariak plazan. Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre eta Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Felix Irazustabarrena.

Ondoren. Aiko taldearekin dantzaldia.

ETZI, LARUNBATA

09:00. Herriko txistulari eta trikitilariaren diana.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

11:00. Arko tiraketa *Arko Natura* taldearen eskutik, eliza ondoan.

12:00. Txakolin eta sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin.

12:00. Loatzo Musika Eskolaren kalejira.

17:00. Alegiako dantzarien emanaldia Larraitz auzoko plazan.

18:00. Herri kirolak Larraitz auzoko plazan: Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Saria, Aimar Irigoien, Izeta II.a, Izeta III.a, Ostolaza. Harriak: 125 kiloko bola, zilindroa eta kubikoa.

Ondoren. Aizkolariak: Floren Nazabal eta Angel Arrospeide.

19:45. Salbea Txintxarri abesbatzaren eskutik.

21:00. Zahagiardoa. Ardoa gaztetxeak, postrea Udalak eta ogia norberak.

23:00. Umeen karaokea.

00:00tik 05:00etara. Makro diskoteka.

IGANDEA

09:00. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

09:30. Kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txistulariaren.

11:00. Kobxe teledirigidoen erakusketa eskolako patioan.

11:15. Meza nagusia.

12:30. Kale antzerkia Oihulari klown taldearen eskutik.

17:30. Pilota partidak: Bellosa-Huarte, Renobales-Jauregi. Profesionalak:

Saralegi-Urrizelki, Mendizaba I.a-Mendizabal II.a.

20:00. Oinkari dantza taldearen emanaldia plazan.



Irigoien Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Sarian izango da. JAIONE ASTIBIA

23:00. Dantzaldia Trakets taldearekin goizaldera arte.

ASTELEHENA, HILAK 17

09:00. Herriko txistulariaren eta trikitilariaren diana.

09:00. Jubilatuek antolatutako mendi marxa.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

10:00-14:00. Haur parkea Larraitz auzoko plazan.

13:00. Apar Festa eskolako patioan.

11:00. Umeen futbito finala.

11:00. *Los incansables* txaranga kalez kale ibiliko da egun guztian zehar.

11:00. Jubilatuentzat hamaiketakoa.

Ondoren. Bertsolariak plazan izango dira: Jose Luis

Gorrotategi, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano.

16:30. Intxurre Pilota Eskolako partidak: Iñigo Otamendi-Alex Goikoebea eta Iker Arandia-Unai Mendizabal; Gorka Altuna-Aratz Irazustabarrena eta Xuar Jauregi-Haritz Zabala; Iñigo Ormazabal-Benat Arandia eta Joseba Arrospeide-Iñaki Landa; Benat Zabala-Adur Murua eta Iñaki Artola-Imanol Irazustabarrena.

17:30. Umeentzat, baserriko jokoak, Kulki taldearekin, eskolako patioan.

20:00-22:00 eta 23:00. Berbena Kiñu taldearekin.

00:00. Txintxarriren erreketak. Elena Zubillaga eta Mirari Mendizabal ariko dira unea alaitzen.

EGITARAU ALTERNATIBOA

GAUR

19:00. Etxafuegoak eta sagardo probaketa. Ondoren, zahagiardoa.

23:00. Amets eta Irma trikitixarekin.

OSTIRALA, PIRATA EUNE

14:30. Bazkaria. Postreetan Xantosen omenezko txapel-sari banaketa, kafearekin batera.

Ondoren. *Macrea*, bakea eta umorezko autobusa. Ondoren, poteoa.

20:00. Mulambo batukadarekin kalejira.

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Silikonay eta Txapel kontzertuan. Jarraian DJ Talo.

LARUNBATA

20:30. Zahagiardo bateratua.

23:30. *Ez Alegin ez inon, AHTrick ez!* manifestazioa.

Ondoren. Jose Luis no me mires con el ojo de cristal, Konkouma eta Uek taldeen kontzertua.

01:00. Gaztetxean, DJ Burrenba.

IGANDEA

16:30. Ume jolasak.

19:30. Asvinenea taldearen *Farsantes* antzezlanaren Gaztetxean.

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Milkshake eta Naiz Rosa taldeak. Zahagiardo bateratua.

ASTELEHENA

19:30. Txan Magoa denentzat.

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Herriko bertsolariak. Ondoren Nekin taldearen kontzertua.

... eta Ferminen ondoren, Karmen

NEREA URBIZU

Heldu dira sanferminen ondorengo jairik desiratuenak: karmenak hemen dira. Karmenekin batera, hainbat herrietako festak, esaterako, Alegiakoak.

Alde batetik Udalak prestatutako egitaraua dago, eta bestetik, Gaztetxeok prestatu dituzten festa alternatiboak. Azken hauek ostegunean hasiko dira, eta astelehenean bukatu.

Azpimarratzekoak zikiri jatea, bihar, herriko plazan, 21:00etan. Txartelak oraindik ere salgai daude ohiko tabernetan, 15 eurotan.

Bestetik, Txintxarriren saioa, bihar, 19:45ean, elizan, umeen 3 kanta eta helduen 6 abesti entzuteko aukerarekin. Larunbatean salbea abestuko dute,

eta igandean, berriz, meza nagusian egingo dute kantaldia.

Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Saria ere jokatu dute Larraitzko plazan.

Gaztetxean, gaur hasiko dituzte jaiak: suzirik deia egingo dute, 19:00etan. Zahagiardoa jarraian izango da, eta Amets eta Irmaren trikitixa saioa izango da, 23:00etan.

Txan Magoak saioa egingo du astelehenean, jende guztia gonbidaturik dagoelarik. Zahagiardoa egunero egingo da.

Autobusa Bideberrietan

Festek irauten duten bitartean Tolosaldeko autobusa Bideberrieta kaleko Geltokian baka-rrik geratuko da, kalea moztuta egingo delako.

Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Saria izango da, zikiri jatea, eta musika aspertzeko lain, alde batetik Udalak eta bestetik Gaztetxeak antolatutako egitarauen barnean

ISKIÑA TABERNA
Goizean Salda
Gauetan martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tif.: 943653097

abian da!
tropela.net
tourra, sarean, sariekin

IBARRA ▶ KULTURA

IÑIGO TERRADILLOS

Eneko Arizaren Lagunak filmagintza eta kultur taldekoak buru belarri dabilta *Sua* filmaren grabaketarekin. Hain zuzen ere, asteburu honetan dute hurrengo saio berezia Seguran, bertan egitekoa den Erdi Aroko jaia baliatuz.

Grabaketa honetan parte hartzeko jendea animatu nahi dute; izan ere, «filmaketa egiteaz gain, jendea ezagutu eta ongi pasatzeko beta ere izango da». Hitzordua etzi izango da, 10:30ean, Ibarako plazan, edota 11:00etan eta 16:00etan Segurako plazan. Jantziak beraiek emango dituzte, baina Segurako Erdi Aroko jaietan parte hartuko dutenek eta filmaketan ere ariko direnei euren jantziekin joatea eskatu diete; bestalde, bazkaria euren esku joango da. Behin grabaketa bukatuta, Segurako jaiak gozatzeko astia ere izango da, bertan jarriko dituzten garaiko poztuez, esaterako.

Animatzen denak grabaketaren inguruko zalantzarik izanez gero, 652 71 58 00 telefono zenbakira hots egin dezake, edota www.enekoaritzarenlagunak.net webgunean sartu.

Inkiszioa oinarri

2005eko maiatzaren 21ean ekin zioten filmaketari *Labourd 1609* izenarekin, baina egun *Sua* izenburupean ari dira. Orduetik, hilean bi edo hiru asteburutan grabaketak egin dituzte. Izena aldatu badu ere, gaia bera da: Lapurdin kokatua da, XVII. mende hasieran, Lancre inkisidorea etorri zeneko garaian. Horren harian, gazte talde batek aparteko gizarte bat egingo du inkisiziotik at bizitzeko; talde horretan maitasun istorio bat sortuko da...

UNAI IGARTUA ▶ ENEKO ARIZAREN LAGUNAK ELKARTEKO KIDEA

«Lagunarteko proiektu moduan sortu zen 'Sua', eta ondo pasatzea da helburu nagusia»

Orain arte egin dutenarekin, grabaketaren erdia baino gehiago egina dutela azaldu dute, eta azaroan espero dute lan hori amaitzea. Gero, ordea, muntaia, produktzioa eta beste hainbat lan geratuko zaizkie egiteko. Proiektuaren inguruan aritu da HITZA solasean taldeki batekin.

Noiz izango dugu honen guztiaren emaitza pantaila batean ikusteko aukera?

Oraindik asko geratzen da egiteko, eta zaila da esatea. Azaro-

Seguran egingo dute etzi 'Sua' filmeko hurrengo grabaketa

Bertan izango den Erdi Aroko jaia baliatuko dute; 10:30ean aterako dira Ibaratik, eta goiz eta arratsalde filmatuko dute

GRABAKETA ▶

DATUAK

Eguna eta ordua. Etzi (uztailak 15).

▶ Ibarako plazan, 10:30ean.

▶ Segurako plazan, 11:00etan eta 16:00etan.

Materiala. Jantziak euren esku izango dira (Erdi Aroko jaietan parte hartuko duten seguraren kasuan, eurek ematea eskatzen dute).

Bazkaria beraiek jarriko dute.

Informazioa. Informazio gehiago 652 71 58 00 zenbakian, edota www.enekoaritzarenlagunak.net-en.



Goian eta behean, Eneko Arizaren Lagunak egiten ari den *Sua* filmeko grabaketaren uneak. HITZA

ELDUAIN ▶

Bi egunetan zabalik udaletxea uztailean

Abuztuaren 1a bitarte bi egunetan izango da zabalik Eleduaingo udaletxea: astearte arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara eta ostegun goizetan 09:00etatik 13:00etara. Abuztuaren betiko ordutegia izango da, hau da, 09:00etatik 14:00etara.

GAZTELU ▶

'Ni arratoi' antzezlanaren hilaren 21ean

Uli Mankomunitateak hilaren 21ean txotxongilo emanaldia antolatuko du. Behibis taldearen *Ni arratoi* antzezlanaren aurkezpena izango da, eta herriko elkartean 18:00etan izango da ikusgai. Kaleko arratoi baten abenturak kontatzen ditu; bere auzoko lehen arratoinak bihurtuko da eta bizilagun izango ditu emakume bat eta kuki txakurra.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibaraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leiza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leiza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

Lagunarteko proiektu moduan sortu zen *Sua* filma, eta parte hartzeraz animatzen den orok atea irekita topatu ditu. Gure helburua ondo pasatzea

PROIEKZIOA

«Datorren urtean, lanak amaitu ostean, parte hartu duten guztiak filmak ikusi ahal izatea da gure asmoa»

izan da hasieratik. Horren adibide da, esaterako, Maulen egin genuen jai berezia. 150 lagunetik gora egon ginen gaztelu batean filmatzen, eta ondoren festarako unea izan zen. Asteburu paregabea izan zen. **Jaso duzuen laguntza ezinbestekoa izan da.**

Bai. Oro har jendearen harrera oso ona izan da, eta gure deialdiei ondo erantzun diete. Egia da batzuetan motz geratu gara, eta moldatu beharra izan dugula, baina gustura gaude.

GIZARTEA ▶

Aresoko eta Leitzako haur txokoetan jostetan

Bi herrietan eta uztaila osoan zehar, goizero-goizero, aisialdiko tailerrak dituzte



Areso. Taldekoan jarrita, edozein jolas egokia da irudimena landuz lagunekin ibiltzeko. JAIONE ASTIBIA



Areso. Norberak bere airera ibiltzeko aukera ere izaten du haur txokoan, bakoitzak bere gustoko lanean. J. ASTIBIA



Leitza. Etxetik eramandako kartoiekin, herriko maketa egin zuten, bere udaletxe eta guzti. J. ASTIBIA



Leitza. Lehenengo astean egindako hormirudiak zintzilikatuta dituzte atarian, jolaslekuan. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Udako oporraldiarekin batera aisialdirako beta ere gehitu egin zaio ikasle-jendeari eta negu gutian zehar ikasten aritu ondoren pilatutako nekeari aurrea hartzeko tenorea izaten da: lo gehiago egitea, mendira edota hondartzara joatea, egun guztia kanpoan egitea, lagunekin edota familiarekin egotea... Hori guztia egiterik ez duenarentzat, edo horrez gain ere bai, askotan egunerokotasunak dakarrenarekin haustea bera nahikoa da buruari eta gorputzari ere atsedenarazteko; gauza desberdinak egitea, alegia.

Eta horretarako aukera dute, esate baterako, Aresoko eta Leitzako haurrek, uztailan zehar herrietan ireki dituzten haur txokoetan: lagunekin egon, eskulanean trebatu, jolas desberdinak egin, irteerara joan... askotariko ekin-tzetan parte hartzeko aukera dute.

Leitzan, Agrikolan dago haur txokoa; bost begirale dira aurtengoan, Ainhoa Antzizar, Miren Fagoaga, Izaskun Iparragire eta Goreti Calderon leitzarrek eta Naiara Barandarrak aresoarra; bost dira, izan ere, «haur txokoan inoiz baino ume

gehiagok eman dute izena: 41 ditugu aurreneko txandan eta 37 daude, bigarreneko; eta beharrezkoa zen», azaldu dute. Uztailan zehar, bi hamabostalditan banatu dituzte txandak. «Adinak ere desberdinak direnez, 4 urtetik hasi eta 9rako umeak ditugu, taldekatu egin ditugu», gaineratuz.

Aste bakoitzari izenburu desberdina egokituta, gai horri lotutako ekintza desberdinak dituzte egunero: elkar ezagutzia, ingurunea, zientzia eta festa. Hala, jokoak, eskulanak, irteerak egiten ari dira. Esate baterako, heldu den astean Donostiako Zientzia Museora joan nahi omen lukete. Eta hori bai, «goizeko bederatzietatik ordubata arte luze ere egiten denez», tartean hamaiketakoak egiten dute, «bakoitzak bere etxetik ekarritakoa».

Areson ere, 3 urtetik 12ra bitarteko 17 ume biltzen dira, Alaitz Olano eta Itxaso Onsalo begiraleen esanera, biak Aresoko gazteak. 11:00etatik 13:00etara elkartzen dira, eskolako gela batean, eta bertan «jolasak, jokoak eta eskulanak» egiten dituzte; gero irteerak ere egiten dituzte (inguruko mendietara).

Kasu honetan, abuztuaren 10a arte egonen da zabalik haur txokoa.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Euskal selekzioaren aldeko Kostako Itzulia bizikletaz izango da larunbatean, hilak 15, Triangulotik 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, Txiki tabernan (15 euro).
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07 ikasturterako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan (Igaralde), 17:00etik 20:00etara bitartean.
Tolosa. Andorrara mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Inaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

MUSIKA

Tolosa. Balen Lopez de Muniainen emanaldia, Gau Giroen baitan. 22:30ean, Plaza Berrian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Ibarr. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.
 22:00-23:00. Gau bero.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Errepikatze modukoa»

TOLOSA ▶ Praktikak amaituta, Poloniatik eta Italiatik itzuli dira Paper Eskolako sei ikasle, motxila «esperientzia eta oroitzen politez beterik»



LEIRE MONTES

Tolosaldeko Lanbide Heziketak bezala, Tolosa Paper Eskola ikastetxeok ere izan dute aukera ikasturte honetan praktikak atzerrian egiteko. Dagoeneko etxean dira berriro, joan zirenean zuten «ilusio berarekin», eta motxila «esperientzia eta oroitzen politez beterik».

Naiara Yurrita anoetarra, Zuriñe Martin andoaindarrak eta Nerea Madina legazpiarra Wroclaw hirian (Polonia) izan dira. «Hasieran ez genekien non ariko ginen lanean, baina azkenean ikusi dugu ikasitako praktikan jartzeko aukera izan dugula eta, era berean, ikasten jarraitu», dio Yurritak. Lau enpresatan egin dute lan, guztiak ingurumenarekin eta uraren tratamenduari lotuta; «asko landu izan dugu uraren gaia, eta oso egokiak izan dira praktikak». Lehen enpresan ez ziren gustura egon, baina besteetan ondo moldatu dira: «Gero eta konfiantza handiagoa zuten gudan, eta askatasun handia genuen gauzak egitarako orduan. Aberasgarria zen guretzat hori jakitea. Hango jendea oso umila da, zintzoa, eta abegitsua». Hizkuntzarekin izan duten hasierako oztipoa gaindituta, «haiek bizitakoa denontzat gomendagarria» dela dio anoetarrak: «Ikasi, zeure kabuz moldatu, jendea, leku eta kultura desberdinak ezagutu...».

Kontxi Pastor tolosarrak eta Nekane Elizalde goizuetarrak, bestalde, Florencia (Italia) egin dituzte praktikak. «Sekulakoa»; hitz horrekin definitu du Pastorrek bizitakoa: hiria, jendearen harrera beroa... «Zalantzarik gabe, lortu dudana baino gutxiago lortzea pentsatzen nuen: lanari dagokionez alde batetik, baina baita arlo pertsonalean ere». Tolosarraren esanetan, esperientziak bere burua frogatzeko balio izan dio: «Konturatzan zara gai zarela gauzak zure kabuz egiteko, eta horrek bete egiten zaitu. Zalantzarik gabe, errepikatuko nuke. Denok bizi beharreko esperientzia dela iruditzen zait».



Goian, Madina, Martin eta Yurrita (erdian), enpresetako batean; behean, lagun batzuekin, Cracovian. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Maialen Otermin.
 Gaur 10 urte. Josu, Mikel eta familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak,
 urrezko ezteiak,
 ezkontzak, jaioberriak...